

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

1792

EBAZPENA, 2015eko apirilaren 15ekoa, Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren zuzendariarena, zeinarekin jendaurrean jartzen baita ondoko izendapena: Bizkaia eta Araba lurralde historikoen Urkiola (ES2130009) Batasunaren Intereseko Lekua (BIL) Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatzea.

Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailburuaren 2015eko apirilaren 9ko Aginduaren bitartez, hau erabaki da: Bizkaiko eta Arabako lurralde historikoetan Urkiola (ES2130009) Batasunaren Intereseko Lekuko (BIL) Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatzea behin-behinean onartzea.

Xedapen Orokorrek egiteko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legeko 8.1 artikulua-rekin eta apirilaren 15eko 1/2004 Legegintza Dekretuaz onartutako Natura Babesteari buruzko testu bateginek 22.2 artikuluekin bat etorriaz, administrazioen eta ingurumena babesteko helburu duten irabazte-asmorik gabeko erakundeen entzunaldi-izapideak egin behar dira eta jendaurrean jarri, eremuen izendapenak, lekuen kartografia mugapenarekin, izendapenak justifikatzen dituzten batasunaren intereseko habitat motek eta flora eta fauna espezieek, bere kontserbazio-egoeraren balorazioa, lekuak kontserbatzeko helburuak eta arauak, eta jarraipen programak.

Horregatik guztiagatik, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko apirilaren 9ko 196/2013 Dekretuko 6.c) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriaz, honako hau,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Jendaurrean jartzea honako izendapen hau: Bizkaiko eta Arabako lurralde historikoetan Urkiola (ES2130009) Batasunaren Intereseko Lekuko (BIL) Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatzea. Jendaurrean jarriko da EHAA-n iragarki hau argitaratu eta biharamunetik 2015eko ekainaren 22ra arte; epe horretan, egoki irizten diren alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte interesdunek.

Bigarrena.– Goragoko paragrafotan xedatutakoaren ondorioetarako, epe horretan dokumentazioa ikusgai izango da bai egoitza elektronikoan: www.euskadi.eus/natura2000, baieta EAEko Administrazio Orokorren Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzan ere, herritarrak atenezko ordutegian, helbide honetan:

Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza.
Ingurumen eta Lurralde Politika Saila.
Eusko Jaurlaritza.
Donostia kalea, 1.
01010 Vitoria-Gasteiz.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko apirilaren 15a.

Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren zuzendaria,
AMAIA BARREDO MARTÍN.